

2025eko Ultzamaldeko Mintzakideko argazki lehiaketaren oinarriak.

1. **Helburua:** Lehiaketa honen helburua Mintzakideko kideak argazki lehiaketa baten bidez sustatzea da.
2. **Parte-hartzaileak:**
Basaburua, Imotz, Ultzama edota Odietako Mintzakideko kideak.
3. **Gaia:**
 - Udazkena.
4. **Parte hartzeko baldintzak:**
 - Parte-hartzaile bakoitzak irudi bat bidali behar du formatu digitalean (JPEG edo PNG) irudiak kalitate ona duela ziurtatuz.
 - Argazkiak izenburu bat izango du eta testutxo batekin bidaliko da. Adibidez, argazkiak zer transmititu nahi duen, non aterata dagoen eta ezin izango da argazkiaren egilea identifikatu.
 - Dokumentu hauekin batera, PDF formatuan, argazkiaren izenburua, egilearen datuekin batera aurkeztuko dira: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta posta elektronikoa.
 - Argazkia koloretan edo zuri-beltzean izan daiteke, eta originala edo argitaratu gabea izan behar du, aurretik saritua edo argitaratua izan gabe.
 - Irudia posta elektronikoz bidali behar da **jone-g@aek.eus** helbidera, 2025ko abenduaren 10a arte.
5. **Saria:**
 - Errigorako Kutxa bat.
6. **Ebaluazio-irizpideak:**
 - Proposatutako gaiekin duten lotura, estetika eta testuaren originaltasuna.
7. **Epaimahaiak eta emaitzak argitaratzea:**
 - Euskara Zerbitzuko teknikaria eta zonaldeko Mintzakideko dinamizatzailea. Abenduaren 15ean irabazleari deituko zaio.
8. **Datu pertsonalak eta argazkien baimenak:**

Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak indarrean dagoen araudiaren arabera erabiltzeko.

Parte-hartzaileen erantzukizuna izango da hirugarren batekin zerikusia duten irudi eskubideak direla-eta erreklamazioak baldin badaude. Partaideak argazkien jabetza intelektuala gordeko du, baina Euskara Zerbitzuak eta Mintzakide Programak argazkiak argitaratu eta erabiltzeko eskubidea izango dute, irabazle izan ala ez. Honek ez dio egileari inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik emango.